

07/ BATZARRA / 2012

**BERASTEGIKO UDALAREN  
2012ko abenduaren 12k EZOHIKO UDALBATZARREN AKTA**

*Berastegin, 2012ko abenduaren 12an, 19:00k izanik Udaletxeko Areto Nagusian bildu dira, Aritz Mujika Saizar jauna alkatearen presidentziarekin.*

*Alkateordea:  
Amaia Azkue Eizagirre Anderea.-*

*Zinegotziak:  
Patxi Irisarri Aranalde Jauna  
Estibaliz Saralegi Labaien Andrea  
Ane Urkizu Lasarte Andrea  
Mikel Beloki Urkizu Jauna  
Leire Garaiburu Arcelus Andrea  
Mirari Saizar Zinkunegi Andrea  
Maialen Etxeberria Masa Andrea*

*Bertan dago eta fede ematen du idazkari-kontuhartzaileak:  
Maria Pilar Garmendia Miguel Andrea.*

*Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 19:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.-*

**LEHEN PUNTUA:**

**2012KO ABENDUKO HILARI DAGOZKION APARTEKO ORDAINSARIEN  
ORDAINKETARAKO AURREIKUSITAKO KREDITUAK EZ ERABILGARRITASUNAREN  
AKORDIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Uztailaren 13ko 2012/20ko Errege Dekretu-legea xedatutakoa betearazten denaren helburuaz, aurrekontu-oreka eta lehiakortasunaren sustapenen neurriak bermatzeko, halaber ekainaren*



29ko 2012/2ko Legeak bezala, Estatuaren Aurrekontu-Orokorrekoak, arau biak izaera oinarrizkoak, Konstituzioaren 14.1.13 eta 156 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Udal Batzarrak ahobatez

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENIK:** 1.- Erabakitzea ez dadin egon eskuragarri aparteko ordainsariak ordaintzeko kreditua. Guztira, 13.541,52 euro dira.

**BIGARREN:** Kreditu hori, hurrengo ekitaldietan pentsio-planetarako ekarpenak egiteko erabiliko da, edota erretiro-kontingentzia estaltzen duten aseguru kolektiboko kontratuak egiteko, Uztailaren 13ko, 2012/20ko Errege Dekretu-Legeari jarraituz eta dagokien aurrekontu-legeetan ezarritako moduan eta irismenarekin.-

**BIGARREN PUNTUA:**

**“PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA A.U.3 ATEGI” DOKUMENTUA  
HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA .-**

2012ko urriaren 5ean (S.E.: 1092), Bonifacia Zuloaga Azpiroz Anda.ak “Plan Especial de Ordenación Urbana de la A.U.3 Ategi” dokumentua udaletxeko erregistroan aurkeztu zuen.-

Plan berezia Rafael Poza arkitektoa keta Pilar del Valle abokatuak idatzi dute eta bere edukinak 2/2006 Legeak galdatutako betebeharrak baditu.-

Eta dokumentazioa ikusita Udal Batzarrak ahobatez

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENGOA.-** Hasiera batez onartu, “Plan Especial de Ordenación Urbana de la A.U.3 Ategi” delako dokumentua, Rafael Poza arkitektoa keta Pilar del Valle abokatuak idatzitakoa, hainbat baldintzekin.-

**BIGARRENA:** Plan berezia jendaurreko erakustaldian jartzea helburu honekin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta lurraldean hedadura handiena duten bi egunkarietan iragarkia argitaratuko da eta udalaren oholean bandoa plazaratuko da.-



**HIRUGARREN PUNTUA;**

**UDAL LANGILEEN 2013. URTERAKO LAN EGUTEGIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Ikusirik 2013ko ekitaldirako udal langileek aurkezturiko proposamena, non urteko lan orduak betetzen direla bermatzen da, oporrak gozatzeko irizpideak errespetatzen direla eta, edozein kasuan, langileek atenditzen dituzten udal zerbitzuen beharrak behar bezala atendituta daudela.*

*Hori guztia ikusita, Udal Batzarrak ahobatez*

**ERABAKITZEN DU:**

**BAKARRA:** 2013 ekitaldirako aurkeztu den udal langileentzako lan egutegia onartzea.-

**LAUGARREN PUNTUA;**

**2013. URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA, LANPOSTUEN ERLAZIOA ETA DOKUMENTU GEHIGARRIAK HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*2013 ekitaldirako Udal Aurrekontuaren proiektuak honako kapitulukozko laburpena azaltzen du:*

SARRERAK			GASTUAK		
1	Zuzeneko zergak/	149.100,00	1	Pertsonal gastuak/	278.747,00
2	Zeharkako Zergak/	60.000,00	2	Ondare arrunt eta zerbitzu/	378.240,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak/	134.550,00	3	Finantza gastuak/	30.500,00
4	Transferentzia arruntak/	609.960,00	4	Transferentzia arruntak/	120.031,00
5	Ondarezko sarrerak/	3.908,00	6	Inbertsio errealak/	40.000,00
6	Inbertsio errealen inorengan./	0,00	7	Kapital transferentziak/	0,00
7	Kapital transferentziak/	12.500,00	8	Aktibo finantzarioak/	0,00
8	Aktibo finantzarioak/	0,00	9	Pasibo finantzarioak/	122.500,00
9	Pasibo finantzarioak/	0,00			<b>0</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA/</b>		<b>970.018,00</b>	<b>GASTUAK GUZTIRA/</b>		<b>970.018,00</b>



*Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarri behar dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependenzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.-*

*Idazkari-kontuhartzaileak beharrezkoa den txosten ekonomiko-finantzieroan 2013ko abenduaren 5ean egin du.-*

*Hori guztia ikusita, Udal Batzarrak ahobatez*

#### **ERABAKITZEN DU:**

##### **LEHENA:**

*Aurkeztu den eta jasota geratu den kapitulukako laburpena duen 2013. ekitaldiko udal Aurrekontuaren proiektua hasierako izaeraz onartzea, hala nola akta honen eranskin I, II eta III moduan agertuz, udal Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, baita Aurrekontuaren Exekuzio Araua.*

##### **BIGARRENA:**

*Espediente osoa erabaki honekin batera arauzko jendaurrekoan ezarriko da.-*

##### **HIRUGARRENA:**

*Jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin-betiko onetsitaz joko da.-*

##### **BOSTGARREN PUNTUA:**

**DIPUTATUEN KONTSEILUAK 2012KO IRAILAREN 25EAN ERABAKITAKOIA BETEZ, BERASTEGIKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN TESTU BATERATUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*2012ko irailaren 25eko Diputatuen kontseiluaren erabakiz (gao 192 zkia. 2011.10.05koa) Berastegiko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren behin betiko izaeraz onartu zen salbuespen batzuekin eta baldintzatuta, udal honek dokumentu bategina onartu behar duela, espedienteari buruzko erabakiak eta esaniko erabakian adierazitako baldintzak betetzen dituen eta ondoren,*



*Foru Aldundira bidali behar dela ezarriz.-*

*Azaroaren 28an (s.e.: 1342) injelanek, udalaren enkarguz idatziriko berastegiko hiri antolaketako plan orokorraren testu bateratua aurkeztu zuten.-*

*Erreferentziazko dokumentuan Diputatuen Kontseiluaren 2012ko irailaren 25eko erabakian xedaturikoa betetzeko beharrezkoak diren aldaketak bakarrik barneratu dira, ondorioz, aurreko dokumentuari dagokionez ez da funtsezko inongo aldaketarik baneratu.-*

*Udal idazkari-kontuhartzaileak abenduaren 10eko txostenean aplikaziozko legedia adierazten du, hala nola dokumentu hau onartzeko jarraitu behar den izapidea.-*

*Guztia ikusirik, udalbatzarak ahobatez*

### **ERABAKITZEN DU:**

#### **LEHENA:**

*Diputatuen Kontseiluak 2012ko irailaren 25ean erabikirikoa betez, Berastegiko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren testu bateratua onartzea.-*

#### **BIGARRENA:**

*Segurtasun juridikoa behar bezala bermatze aldera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 7. artikulua dion moduan, lehentasun hau aplikatuko da maila bereko xedapen desberdinen arteko gainjarpenak, zehazgabetsunak eta kontraesanak ebazteko: aurrena aginduzko xedapenak gailenduko dira, xedapen deskribatzaile, informatzaile eta justifikatzaileen aurrean; eta bigarren idatzizkoak gailenduko dira, grafikoen aurrean. Azalerei dagokienez, benetako azalera era zehatzenean jasotzen dituzten xedapenak hartuko dira kontuan beti.*

*Aginduzko xedapen idatzien arteko aldeak eta, egonez gero, kontraesanak ebazteko, beti kontuan hartuko da hirigintzako ordenazioaren helburu esplizituekiko koherenteena edo, bestela, ekipamendu publikoetarako azalera handiena aurreikusten duena, ingurumen kalitatearen hobekuntza handiena dakarrena edo interes publiko handiena duena.*

*Xedapen grafikoen arteko aldeak eta, egonez gero, kontraesanak ebazteko, beti kontuan hartuko da oinarri kartografiko zehatzena edo, bestela, eskala txikiena erabiltzen duena.*

**HIRUGARRENA:** *Erreferentziazko espedientea erabaki honekin batera, bere onarpenerako Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.-*



**SEIGARREN PUNTUA;**  
**KREDITUEN ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA. KREDITU**  
**GEHIGARRIAK.-**

<b><u>KREDITU GEHIKUNTZAK</u></b>		<b><u>INCREMENTOS DE CREDITO</u></b>	
Kapitulua/Capítulo	Deitura/Denominación	ZENBATEKOA/IMPORTE	
II	<b>Ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketa</b> Compra de bienes corrientes y de servicios	2.232,45	
IV	<b>Trasferentzi arruntak</b> Transferencias corrientes	180.768,16	
<b>GUZTIRA GEHIKUNTZAK/TOTAL AUMENTOS</b>		<b>183.000,61</b>	

<b><u>FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK</u></b>		<b><u>RECURSOS QUE LOS FINANCIAN</u></b>	
Kapitulua/Capítulo	Deitura/Denominación	ZENBATEKOA/IMPORTE	
VII	Kapital transferentziak	101.927,86	
VIII	<b>Aktibo finantzarioak</b> Activos financieros	81.072,75	
<b>BALIABIDEAK GUZTIRA/TOTAL RECURSOS</b>		<b>183.000,61</b>	

**ZAZPIGARREN PUNTUA:**  
**BERTARATUKOEN AZALPENAK.-**

*Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak derizoten azalpenak egin ditzaten.-*

*Egoera honetan, 19:40 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.-*

*Berastegin, 2012ko abenduaren 12a.*

*Udaleko idazkari-kontuhartzailea,  
Maria Pilar Garmendia Miguel*

O.I.  
Alkatea,  
Sin.: Aritz Mujika Saizar



Eranskina I

**2013. URTERAKO ELDUINGO UDALAREN PLANTILLA ORGANIKOA**


<b>2013ko ekitaldi ekonomikorako onartutiko Berastegiko Udalaren Plantilla Organikoa.</b>	<b>Plantilla orgánica del Ayuntamiento de Berastegi para el año 2013.</b>
<b>KARRERAKO FUNTZIONARIONTZAKO GORDETA KO LANPOSTUAK</b>	<b>PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA</b>
<u>Lanp. izena lanp.kop.Taldea (1) Egoerak (2)</u>	<u>Den. plaza número Grupo(1) Situación(2)</u>
Idazkari-Kontuhartzailea... 1 A1 J	Secretario-Interventor.... 1 A1 P
Oharra: Saioa %70, Elduaingoarekin elkartea.	Obs: Dedicación 70 %, agrupada con Elduain.
Administari Laguntzailea... 1 C2 J	Auxiliar Administrativa.... 1 C2 P
Administrari Laguntzaile....1 C2 H	Auxiliar Administrativa... 1 C2 V
Gizarte langilea.....1...B... ..H	Trabajadora social.....1.....B.....V
Oharra: Saioa % 34,28, Elduaingoarekin elkartea.	Obs: Dedicación 34,28 %, agrupada con Elduain.
(2) H= Hutsik J= Jabetzan	(2) V= Vacante P= Propiedad
<b>LANGILE LABORAL FINKOENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK</b>	<b>PUESTOS DE TRABAJO ATRIBUIDOS A PERSONAL LABORAL FIJO</b>
<u>Izena Asimilaz.taldea Lanp.kop</u>	<u>Denon. Grupo de asimilac. Nºpuestos</u>
Zerbitzutako arduraduna B 1	Encargado de serv. B 1
Udal Zerbitzu Ofiziala ULE1 1	Operario de serv. ULE1 1



2013ko udal lanpostuen zerrenda				Relación de puestos de trabajo para el año 2013					
Lanpostua / Puesto	Saila / Sección	Izaera/Condición	Eskala	Azpitaldea/ Grupo	Maila/ Nive	Lansaiola/ Dedicación	H.E /Perfil Ling	Der.data / Fecha Preceptividad	Tit *
Idazkari-Kontuhart. Secretario-Interventor	Idazkari-Kontuhart.	F	G.E.	A1	21	%70	4	95.03.30	Z/E/S Liz.
Adm. Lagunt. Auxiliar Admtivo.	Adm. Orok.	F	A.O.	C2	11	%100	2	95.03.30	DBH / ESO
Gizarte langilea Trabajadora social	Gizarte Zerbitzuak	F	A.O.	B	17	%34,28	3	11.09.07	Diplomatua Gizarte Lanean
Adm. Lagunt. Auxiliar Admtivo.	Adm. Orok.	F	A.O.	C2	11	%100	2	11.09.07	LH II edo antzekoa
Zerbitzuetako Arduraduna Encargado de Servicios	Zerbitzuak	L	A.B.	B		%100	1	11.09.28	LH II edo antzekoa
Udal zerbitzu Ofiziala Operario de Servicios	Zerbitzuak	L	A.B.	ULE 1		%100	1	95.07.30	Oinarrizkoak

Z/E/S Liz. = Zuzenbidean, Zientzia Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan, Ekonomian edo Finantza Zientzietan Lizentziatua .





*Eranskina III*

**2013. URTEKO BERASTEGIKO UDALAREN EXEKUZIO ARAUA**

**1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukina**

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 268.583,00 eurotakoak dituena, honako hauek osatuko dute:

Udalaren Aurrekontua, 268.583,00 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

**2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak**

2013ko ekitaldi ekonomikoan Elduaingo Udalak abalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren % 20ko mugapean, (53.716,60 euro).

**3. artikulua.- Zorpetze muga**

Udalak bere gain hartuko epe luzeko zorpetze eragiketengatik, edozein izanik ere horiek dokumentatzeko era, 2012ko abenduaren 31n gelditzen den zor bizia ezingo da 50.078,75 eurotik gorakoa izan (aurtengo sarrera arrunten % 25a).

**4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra**

4.1.- Kredituen lotespen juridikoen mailak

Elduaingo Udalaren aurrekontua oso txikia izanik, aurreikusigabeko edozein gertaera txikiak, edo ezustekoren batek, hankaz gora jar dezake kontusail baten urteko kreditua, adibidez bideetan ohi diren baino zulo gehiago gertatzea, edota, ohi diren baino farola gehiago izorratzea, edota ur sarean matxurak maiz gertatzea. Horiek direla eta, maila orokorrean, gastuetarako kredituen lotespen maila, kapituluka egin ahal izango da. Kapituluak oso osorik hartuta. Hala ere, lotespen neurri zabal honetara iritsi aurretik, eta kreditu aldaketa eragiketetara jo beharrean, beste lotespen maila hertsiki batzuk izendatuko dira, ordezeko arau bezala eta gastuen kontabilitate zehatza egin dadin, lehentasunez aplikatu daitezten, honela:

- Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

- Kapitulua bakoitzean eta kontusail bakoitzean onetsitako kredituak, mugatzaileak eta aipatu ordezeko moduan, lotesleak izango dira, eta kreditu aldaketa eragiketetara jo beharrean honako lotespen-mailak



agortzen ihardungo dira:

- \* Funtzioa eta artikulua ekonomikoa, inbertsio errealeztat (VI. Kapitulua).
- \* Funtzioa eta kontzeptua, transferentzietan -arruntak nahiz kapitalezkoak- eta aktibo finantzarioetan (IV. VII. Eta VIII. Kapitulua).
- \* Programa funtzionala eta kapitulua, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketetan (II. Kapitulua).
- \* Kapitulua, pertsonalaren gastuetan, interesetan eta pasibo finantzarioetan. (I, III eta IX. Kapitulua).

#### 4.2.- Kreditu zabalkorrak

Gastuen Aurrekontuko partidak, zabalkorrak izango dira, baldin eta haunditzen den kopurua, beste kontusail baten murrizketa suposatzen baldin badute. Ostera, zabaldu ahal izango dira kredituak, baldin eta sarreraren bat haunditzen baldin bada, edo aurrakusten ez zen sarreraren bat gertatuz gero.

Uste baino diru-eskubide gehiago onartzearen arabera, kredituak zabaldu ahal izateko, kreditu gaikuntza espedienteak izapidatu beharko dira, bere erregimenaren arabera.

Kreditu globalaren erabilpenaren arabera nahiz soberakotzat jotako kredituetatik eginiko transferentzien arabera zabalkorrak diren kredituak, ordea, kreditu transferentzien erregimenean finantzatu dira.

### **5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak**

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko estatuko araudiak eta gainontzeko Udal Arauak jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein kontusailetan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.


Alkatea izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada. %5eko muga gaindituz gero, mota honetako eragiketak onartzeko eskumena Udalbatzarrarena izango da. (Aurrekontuko % 5a 15.293,77 euro dira).

### **6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak**

#### **6.1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak**

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.



- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

### **6.2.- Gastuen baimena eta erabilera**

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Udaltzarraren eskumena izango da 600,00 eurotik gorako gastuen, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera.
- b) Alkate-Lehendakariaren eskumena izango da 600,00 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedienteari alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurrizko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du, eta gastua egotzi behar zaion kontusailean adinako krediturik dagoen adieraziko du.

Ordainketak gauzatu ahal izateko Alkate-Lehendakariaren, diruzainaren eta Idazkari-Kontuhartzailearen sinadurak ados, ordainketa dokumentuan azaldu beharko dira.

Osoko Bilkura egiten denean, aurreko bileratik izandako gastu guztien erlazioa (600,00 eurotik gorakoak bakarrik) aurkeztuko da, zinegotziek udalaren kudeaketa ekonomikoaren gora-beheren berri izan dezaten.

Salbuespen gisa eta Kultura Batzordearen funtzionamendu egokirako, aldiro-aldiro edo ekitaldiren bat hurbildu ahala (herriko festak), helburu honetarako berezia den banku kontuan intsuldaketa egingo da. Diru egozpena hiru giltzarien adostasunarekin egingo da eta ekitaldia amaitzen denean, zurriztako gastuen arabera eta Alkatezaren Ebazpena bidez, egindako gastuen onarpena egingo da, kontuaren doiketa eta saldoen egiaztapena eginez. Komenigarria irudituz gero, sistema hau, Gizarte Zerbitzuetara ere hedatu ahal izango da, kontu berezi batetara intsuldaketa egin eta gastuak zurriz ahala ekarpen berriak eginez.

### **6.3.- Obligazioaren onarpena**

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisuetatik sortutako obligazioak.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat, kontuhartzailearen txostena daraman faktura zerrenda har daiteke.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak, kasu honetan zerbitzu aniztako langileak, diligentzia bana egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren edo diruzainaren oniritzia daramana, honakoa jasoz:

- \* Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta berarekiko adostasuna.
- \* Gastu onartu duen organoa eta eguna.
- \* Zein aurrekontu partidatan eta zein katebururen erreferentziapean kontabilizatu behar den.



#### **6.4.- Ordainketaren agindua**

Udal entitateko Lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

#### **6.5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea**

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:

- \* Gastuen baimena eta erabilera, udal entitatean legez hartutako konpromisuetatik datozen eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguren interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzenez erosketak.
- \* Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean: 600,00 eurotik beherako erosketa arruntetan, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskonzentratutakoak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeke.

#### **7. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak**

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez justifikatu beharko dira.

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehienez astebetean zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke fondorik ez izatea.


#### **8. artikulua.- Aldez aurreko gastu baimendua.**

Gastu arrunt errepikakor eta txikiak gauzatzeko prozesua aldez aurreko gastu baimenduen fitxak betez hasiko da.

Aldez aurreko gastu baimendu horretan, gastu propoamen bat jasoko da:

- Erosketa egin behar duen udalaren arduradunak sinatuta.
- Kontuhartzaileak aldeko txostena eginda.
- Alkatetzak onartuta.

Proposamen horren bitartez udalaren arduradunari baimena ematen zaio gastuak konprometitzeko aldez aurreko gastu baimenduan jasotako kopuru osoraino, gehienez 600,00 euro. Kontuhartzailera edo Alkatetzara jo gabe banan-banan



kontuan hartutako gastu bakoitzerako.

#### 9. artikulua. Kutxa finkoko aurrerakinak

Aldizkako izaera duten edota errepikakorrek diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute. Aurrerakinak ematea nahiz itzultzea aurrekontuz kanpoko eragiketarik izango dira.

Kutxa finkoko aurrerakinak udal entitateko Alkate-Lehendakariaren Ebazpenaz onartuko dira, alorreko ordezkariak proposatuta. Diru-hornidura automatikoki berritu daiteke aurrerakoaren likidazioa aurkeztu ondoren (Ikus, Kultura Batzordearen kasuan adierazitako prozedura).

Kutxako arduradun, ordaintzaile nahiz habilitatuek jasotako dirutza Korporazioaren Kutxan kokatu beharko dituzte eta behar ahala erabili ahal izango dituzte aurrerakietako xedeetarako. Guztiz galerazita gelditzen da fondo horiek nor bere helburuetarako erabiltzea. Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean Udalaren izenean, jasotako fondo bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko.

Aurrerakinen jasotzaileek jasotako diruaren kontrola eraman beharko dute kontu korranteen liburu baten bitartez, bertan zordunduz eta abonatuz bai sarrerak bai fakturaz zuritutako zenbatekoa.

Era berean, udal diruzainak ere liburu laguntzaile bat eraman beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeko, bertan zehaztuz jasotzaile bakoitzari emandako dirua eta zuritutako zenbatekoa.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 15 baino lehen.

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontu partidari aplikatu beharko zaizkio ordain-aginduak.

#### 10. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalteordainak


Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalteordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorriak gastuak:

- \* Joan-etorriak: 0,27 euro kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- \* Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

b) Otardu eta ostatu gastuak:

- \* Egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.
- \* Udalbatzarretara edo bileretara joateagatik ez da kalteordainik ordainduko.



Funtzionarioek eta langile kontratatuak egindako lanen kalteordainei buruz Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako indemnitazioak hartzeko eskubidea izango dute.

Hautetsiek eta langileek egindako bidaien memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jaso. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalteordainaren zenbatekoa.

#### 11. artikulua.- Diru-laguntzak

Edozein jarduera antolatzeko Udalak emandako diru-laguntzek bat etorri beharko dute batzorde informatiboek onartutako oinarri edo irizpideekin.

Udalaren aurrekontuaren kargura inolako diru-laguntzarik jasotzen duenak, aldeztatik, Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, kontuhartzaileak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.

#### 12. artikulua.- Ikastaroak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

- a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, udal entitateko lehendakariaren oniritziarekin, besteak beste honako datuak jasoz:
  - \* Ikastarora doanaren datuak. izen-abizenak, lanpostua, e.a.
  - \* Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
  - \* Ordutegia.
  - \* Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.
- b) Udal entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontuhartzaileak aurrekontu krediturik badagoenentz eginiko txostena ikusita.
- c) Ebazpena ikusita, diruzainak "zuritu beharreko ordainketen" izaera izango duen diru-hornidura egingo du.